

# BERRIGARA


44. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1991, abenduak 5

Bergara


**Kirol  
sariak**  
(III)




**HIESa**  
**XX. mendeko**  
**izurritea**




**Gorlan**  
parkea egingo  
da



**Urteagan**  
espaloia  
eraikitzen



**Saskibaloia:**  
bergararrak  
lider




**kutxa**

gipuzkoa  
donostia kutxa



# BERROYA, E. A.


INPRENTA



OFFSET - TIPOGRAFIA  
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2  
Tfnoa: 76 00 01 BERGARA

## BERGARA BOLTSAK



- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1, Tfnoa: 76 57 69 Faxa: (943) 76 55 66 BERGARA

## MABER GIMNASIA - ETXEA

Kulturismoa

Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa  
Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak  
Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak

**URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!!**

Zuzendaritza: MARTIN BERROYA EGAÑA  
( Euskadiko Kulturismo Txapelduna )

Koldo Elizalde 16, Behea Tfnoa: 76 56 17 BERGARA

# G a r m i s h

## Bitxitegia

### Fantasiarik benetakoena

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57 BERGARA



# BERRIGARA

## Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako  
Udala

## Zuzendaria:

Miguel Angel Elkorobereibar

## Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo  
Mendibil

## Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Iñaki  
Arietaleaniz eta Eburne Arenaza  
Tfnoa: 760397

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola  
eta Juan Martin Elexpuru

## Kolaboratzaileak:

J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Josune Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa Bikuña

## Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares, Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

## Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri  
Taldea

## Copyright:

BERRIGARA

**Tirada:** 2.500 ale

**Logo gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eriztien erantzunkizunik.



**Joaquin Gaztanbide Abesbatza** Tuteratik atorriko zaigu ostiralean. Azaro-abendu Musikalak aurrera darrai eta gero eta aukera gutxiago geratzen dira aurtengo ediziorako prestatu diren kontzertu bikainak gozatzeko. Oraingo honetan, koral napar honenk, besteak beste, Guridiren Aitor-Ator, Di Lassoren Matona mia cara..., eta beste hainbat pieza kantatuko dizkigu. Ostiralean, arratsaldeko 8etan, Seminarioko Elizan.

## OSTIRALA 6

- Eskubaloia:  
- Bergara-Urrietako (senior gizonetzkoak), 12.15etan

## LARUNBATA 7

- Saskibaloia:  
- Bergara-Bosko Zaleak (kadete gizonetzkoak), 16.00etan.  
- Bergara-iraurgi (gazte mutilak), 16.00etan.  
- Bergara-Juven (gazte neskak), 17.30etan.  
- Bergara-Ostadar (junior mutilak), 19.00etan.

- Pelota partiduak:  
Irazola-Berna/Muntion-Santi, Bengoetxea IV-Aldazabal II/Arteaga-Errasti eta Herran Astarloa/Gabilondo-Garaitz, 16.30etan Pelotalekuan.

## IGANDEA 8

- Saskibaloia:  
- Bergara-Ondartza (senior emakumezkoak), 12.00etan.  
• Erakusketa:  
- Kirol argazkien erakusketa Kultur Etxean (azken eguna).

## FARMAZIAK



- 6 Mozos
- 7 Camacho
- 8 Camacho
- 9 Puy
- 10 Guallar
- 11 Estella
- 12 Mozos
- 13 Camacho

## ZINEA



**Robin Hood**  
*Príncipe de los ladrones*

- OSTEGUNA 22.30etan.
- IGANDEA: 11.30etan.

## Buscando Justicia

- OSTIRALA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
- LARUNBATA: 17.00 eta 19.30etan.

## Oscar, quita las manos

- LARUNBATA: 22.30.
- IGANDEA: 17.00, 17.30 eta 22.15etan.
- ASTELEHEN: 19.30.

## OGIA



- OSTIRALA: Ogizun
- IGANDEA: Konde

## ETXAGI

### Jatetxea

Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak  
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

## KIZKUR



**Ileapaindegia**  
**Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

# KATAIDE Jatetxea

- Perretxikoak plantxan
- Piperrak perretxikoz eta kanbaz beterik
  - Berdura Pudina
- Berenjena kremaz urdaiazpiko eta ganbekin
  - Kataide itsasapoa
  - Solomilloa pipar hautsaz
  - Kataide degustazioa

**3.000 pzta.**

Kataide Pol. Ind. ARRASATE  
Tfnoa: 77 10 80 - 79 60 10

# Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65



## Ainhoa Leteri

Egia da Elgoibarko Batzokian aipatutako egutegiak banatzen zirela eta hauek eraso sexista bat suposatzen dutela, baina egia da baita ere Elgoibarko beste taberna askok banatzen zituztela egutegi hoiek beraien bezeroen artean.

Ainhoa Leteri, hau honela izanda, zergatik ez dituzu beste taberna guztien izenak ere idatzi?. Eraso sexisten aurka zaude ala batzokiaren aurka besterik gabe?

A.L. Mendizabal

## Kontratazio bat dela eta

Bergarako Udalak legez kanpoko kontratazio bat egin duela ikusirik, Enpresa Komiteak honako hau adierazi nahi du:

1.- Ixilpean egin den kontratazio susmagarri hau salatzen dugula.

2.- Deialdi publikoak kontutan hartu beharra dagoela, halako baja kasuetan presazko lana egonda ere,

kontratazio modu hau jarraitu ez dadin.

3.- Kontratazio modu hau, Udaletxeko lanpostuetara aurkezten diren, bertako langile, eta Enpresa Komiteari barre egitea dela.

4.- Udal hau oso legala dela langileen eskubideak kontrolatzeko orduan, eta hala komeni zaionean kasorik ere ez duela egiten.

Udaletxeko Enpresa Batzordeak

Tiiira ba!



Josu Okina





**□ Azaro-abendu**

Tuterako *Joaquin Gaztambide* Abesbatzaren kontzertua izango dugu ostiralean, hilak 6, *Azaro-abendu Musikalaren* barne. Kontzertua arratsaldeko 8etan Seminarioko Elizan izango da.

**□ Eskulanak**

Abenduaren 9tik 15era bitartean Kultur Etxean *eskulanen erakusketa* izango da ikusgai. Erakusketa honetan *Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak* antolatu dituen ekintzetan parte hartu duen jendeak egindako koadro tridimensionalak, makrameak, kristal gaineko marrazkiak..., etab. luze bat ikusteko aukera izango da.

**Elbarrituen azterketa**

*Bergarako Udalak elbarrituen azterketa giza-laborala* egiteko asmoa du, eta estudio hori egingo duen diplomatua kontratatzeke hautaketa-probak abenduaren 17an izango dira. Estudio honek bi zati izango ditu; lehenbizi, elbarritu fisiko zein sikiko eta sensorialen zentsua egingo da eta, era berean, bakoitzaren egoera soziala eta lanekoa aztertuko da. Lehen

zati honetan elbarrituen kolektiboaren beharrak eta etxean dituzten oztopo arkitektonikoak ere aztergai izango dira.

Bigarren fase batean, talde-azterketa egingo da. Behin kalean dituzten oztopoak aztertuz gero, beste hainbat udalek egin duten bezala, arazo horiei soluziobidea ematen saiatuko da Udala.

**□ Arientza**

Ostiralean, hilak 6, *Jose Mari Marzana "Arientza"* k parte hartuko du Jataben *Bilbao-Bizkaia Kutxaren* idiprobetako finalean. Proba nagusienetako bat den honetan Madariagako Ezkerra, Arzadun, Erreizta, Andrakas eta Pedernalesek *"Arientza"* rekin batera hartuko dute parte.

**□ Gazinema**

Antzuolako *Gazinemak* ostegunera, hilak 5, aurreratu du asteroko zine-emanaldia. Oraingo honetan, gaueko 10etan, arrakasta haundia lortu zuen *Dirty Dancing* filme iparamerikarra eskeiniko da Antzuolako Zine Aretoan.

**Urteagan espaloia**

*Ingesa* enpresa hasi da dagoeneko *San Antonio* auzoko *Urteaga* kalean espaloia egiten. Antzuolarako bidean dagoen kale honetan gertatzen ziren istripuak zirela eta, auzokideek aspaldi egin zuten espaloia egiteko eskakizuna. *Gipuzkoako Diputazioak* urri aldera eman zion obren adjudikazio enpresa donostiarri eta hasiera batetan 37 milioi pezetako presupuestoa izango dute. 185 cm.ko zabalera eta 265 metroko luzera izango duen espaloia otsailerako amaitzea espero da.



**ORTZI**  
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68



Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



### □ Egunkaria

Ostiralean, hilak 6, *Euskaldunon Egunkariak* bere *lehen urteurrena* ospatzeko metxeroak, pegatinak, txapak eta horrelakoak salgai izango ditu kalean jarriko dituen mahaietan. Horrez gain, dohainik banatujo den Deba Bailarako ale berezi bat prestatu dute. Taberna ezberdinetan ere *Egunkariak* antolatu duen tonbolako boletoak salgai egongo dira eta sariak astelehenetik ostiralera, 6etatik 8etara, Kultur Etxean jaso ahal izango dira.

### □ Kirol argazkiak

Iganderarte, hilak 8, *Kirol Argazkien Lehiaketara* aurkeztu-tako argakien erakusketa ikusteko aukera izango da *Kultur Etxean*, astebukaeran, eguadiako 12etatik ordu bietara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.



## Parkea Gorlan

*Bergarako Udalak Gorla* inguruan *atsedenditarako toki* bat prestatzeko asmoa dauka. Udalak, urte batzuetatik hona, hainbat hektarea erosi ditu Gorla inguruan eta joan den asteleheneko plenoan ere beste 10 hektareen erosketa aprobata zen EAJ, EE eta PSOEn aldeko botoekin eta, HB eta EAren abstentzioarekin; azken bi alderdi hauek gehiegizkotzat jotzen bait zuten metro karratuko 175 pezeta ordaintzea. Kantina berritzeko proiektua ere ba-

dago; zaharra kendu eta berria, orain dagoenaren parean, bidez bestaldetan eraikiko litzateke, errepidetik 50 bat metro. Tabernak 100 metro karratu eta barra kanpoaldera izango du. Komunak barruan zein kanpoan izango ditu, kantina itxita egonda ere erabili ahal izango direnak. Inguruan mahaiak eta iturriak jartzea ere pentsatu da. Udalak erositako lursailetan pinuak bota eta zuhaitzak eta belarra landatzeko asmoa dauka. Aurrekontua 21 miliokoa da.

### □ Argazki rallya

*Pol-Pol Mendizale Taldea* antolaturik, igandean, hilak 8, urteroko *argazki rallya* izango da. Parte hartu nahi duten argazkilari guztiek Bergara inguruan 24x39 mm.tako diapositibak atera beharko dituzte eta gai bakoitzeko diapositiba bat aurkezteko aukera izango da. Lan guztiak abenduaren 20tik urtarrilaren 3ra bitartean jasoko dira eta epaimahaiak bere erabakia ezagutarazi ondoren, diapositiba emanaldia izango da urtarrilaren 18an Pol-Polen.

### □ Txibisto

Larunbatean, hilak 7, rock jaialdia izango da *Txibisto* dantzalekuan. Oraingo honetan, gaueko 11etan, *Rage* eta *Gamma Ray* taldeak izango dira beren musikarekin bisitatuko gaituztenak.

**TOKI-EDER**  
**Taberna**

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**LONBIDE**  
**OINETAKOAK**



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

**KONDE**  
**PANADEROKUA**




Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

**ayastury**

Barrenkale 30  
Tfnoa: 76 11 31

**Jantzidenda**





## Euskara hitzarmena

"Euskara Gazteena" kanpainari jarraipena emanenez, **JARDUN Elkarteak** eta **Udaleko Euskara Batzordeak** bultzatuta, euskararen erabilpena bultzatzeko hitzarmena sinatuko dute herriko hainbat entitatek, tartean gazte-taldeak, kultur eta kirol elkarteak eta ikastetxeak izango direla.

Hitzarmenaren helburua entitateotako barru-administrazioan, beren ihardueretan eta elkarren arteko harremanetan euskararen erabilpena bultzatzea da.

Dagoeneko talde askok azaldu dute hitzarmena sinatzeko interesa eta ia ikastetxe guztiek eman dute baietza eta hainbat dira beren onarpena eman duten talde eta elkarteak ere: Lokartza, Taun-Taun, EGI, Jarrai, Xamatx, Aske, Atletiko Zaleak...

Hitzarmenaren gainbegiralea Gasteizko Gobernuko **Hizkuntza Politikorako Idazkaritza Nagusia** izango da eta informaziorik nahi izanez gero **JARDUN**era edo **Euskara Zerbitzura** jo dezake.

## Txinpartak

✓ Astelehenean egindako Plenoan, **Bergarako Udalak Administrazio Orokorreko Teknikari** bat eta **Hirigintza bulegorako beste administrari** baten kontratazioa onartu zuen. EAJ, EE eta PSOE kontratazio horien aldekoak azaldu ziren bitartean, HBk eta EAK kontrako botoak eman zituzten.

✓ **48 pertsona** aurkeztu ziren ostegunean, **Udalak konbokatutako kalegarbitzaile 6 postu** betetzeko egin ziren probetara. Emaitzak hilaren 10ean jakin araztea espero da.

✓ **Alargunen Elkarte**ko bazkideek bazkaria izango dute igandean, hilak 8, Seminarioan duten Elkartearen.

✓ Euskal preso, errefuxiatu eta deportatuen familiakoen **Senideak** kolektiboak, ostiralean "Etxean nahi ditugu" lemapean Bilbon izango den manifestaziora joateko autobusa antolatu du. Irteera arratsaldeko 3.30etan Frontoitik izango da eta izena emateko Pol-Pol, Arrano edota Kortazar tabernetara jo dezakezue.

✓ Abenduaren 14ean hasiko da **Elgetako Kirol eta Gazteen Udal Batzordeak** antolatutako futbito txapelketa. Era berean, Gabonak heldu bitartean, larunbatero, gaueko 11etan, Gabonetako Bolo Txapelketa jokatu da Elgetako Bolatokian.

✓ Joan den ostiralean **Taun Taun Kolektibokoak** ETB-2ko "Vasta con uve" saioan izan genituen. Oraingo honetan ere txontxongiloekin duten trebezia azaldu ziguten.

Taberna

kafetegia

### EHIZTARIAK

### LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubleta 26,

BERGARA

## BERGARA

### Karrozeria

Txapa - Pintura


Tfnoa: 76 12 31

Zubleta 46  
Bergara

# ERROTA - GAIN

- Aluminioak -

## Aluminiozko arozgintza



• **Aluminiozko leihoak**  
(Isolamendu termikoa)  
eta PVC.

• **Galdaragintza**  
orokorrean

Labegarieta - Hazkarrutz Auzoa Tfnoa; 76 32 40  
BERGARA





**Bittor Irigoien:**

**"Kontuz ibiliz gero ez dago HIESa hartzeko arriskurik"**

*Bittorrek Irigoienek, zarauztarra jaiotzez, 40 urte ditu eta azken 20ak Bergaran eman ditu. Santiago de Compostelan orain dela 16 urte lizentziatu eta Iruñeako Virgen del Camino eritetxean Barne Medikuntzan espezializatu zen. Bergarako ambulategiko medikua da.*

- *Esplikaiguzu, labur, HIESa zer den.*

- Birus batek sortzen duen gaitz kutsakor bat da HIESa. Birus honek gure defentsa sistema desegin egiten du eta gaixotasun askoren aurrean batere defentsarik gabe uzten gaitu. Beraz, HIESak jota hiltzen dena, beste gaixotasun batekin hiltzen da, beste infekzioen bategatik hiltzen da. HIESak egiten duena da edozein gaitzen aurrean gure defentsa sistemak desegin.

- *Ze ezberdintasun dago seropositiboak direnen eta birusa garatu dutenen artean?*

- Diferentzia handia dago. Seropositiboak dira birusa beren gorputzean daukatenak. Eta HIESa daukatenak, berriaz, gaitza, enfermedadea, gorputzean garatu dutenak. Seropositiboak izatea zera esan nahi du: birusarekin kontaktuan egon garela, geure barrinean daukagula, eta gertatu daiteke birusa garatzea ala ez garatzea.

# HIESa: XX izuri

*HIESa dugu mende honen azken urteetako gaitz delako delako hamar urte Estatu Batuetan lehen kasu gaitz urtera haundituz joan da, HIESa. Azken egunetan, Magic Johnsonen aitopertsona hunkitu dute. Joan den igandean, ta Orrialde hauen bitartez, gaixotasun honi buruzko Bittor Irigoien medikua elkarrizketatu dugu eta HIESa badugu ere, ez zaigu posible izan. Honekin batera gaixotasunaren emaitza...*

Baina argi dagoena da seropositiboak izatean, birusa beste norbaiti transmititu diezaioketuz gaitz...

- *Gertatu daiteke seropositiboak den norbaitek gaitza ez garatzea?*

- HIESa gaitz berria da, orain dela hamar urte eman zen lehen kasua Estatu Batuetan. Honi buruz homosexualen artean egindako ikerketa bat badago. Zazpi urteko eboluzioan, ehunetik 30ek gaitza garatu dute, beste 30ek, HIESaren antzeko gaitza garatu dute eta gainontzeko 40ak seropositiboak besterik ez dira, hau da, ez dute gaitza garatu. Orduan, oraindik ez dakigu ziur batzuk gaitza zergatik garatzen duten eta beste batzuk zergatik ez. Ba-

daude faktore genetikoak...

- *Eta zeintzuk dira kutsatzeko bideak?*

- Odolaren bidez eta sexu harremanen bidez. Horiexek biak dira gaitza hartzeko bideak. Semenaren eta bajinaren sekrezioen bitartez eta odolaren bitartez. Baita, emakume bat haurdun dagoenean, bederatzi hilabete horietan, haurra edukitzerakoan eta titia ematerakoan, haurra kutsatu dezake.

- *Orduan, gaitza sendatzeko txertorik ez badago zein da HIESaren aurkako formula?*

- Argi dago. Alde batetik, drogarekin ibiliz gero kontuz ibiltzea, hau da, xiringak behin erabili eta gero, beste bati ez pa-

**GOIERRI**

**Autogidarien eskola**

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

**LARRAÑAGA**

**eta ZUBIA**

**Banatzaileak**

**Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejlak**

Martokua 32, tfnoa: 764594



# X mendeko irritea

ait, Askok, XX. mendeko izurritea dela diote. Orain  
ua gutu zenetik, mundu osoan zabaldu eta uretik-  
a, HIESak jota daudenen kopurua.

pen eta Fredy Mercuryren heriotzak gizarte osoa  
n, talde, HIESaren eguna ospatu zen.


uruzbait gehiago argitu nahi izan dugu. Hortarako  
et HIESa duen bergarar baten eritziak jaso nahi izan  
ate gaitz honen eta kondoiaren inguruko zenbait datu  
atditugu.

satzea, analisiak egitera-  
koan kontuz ibiltzea,  
hortzak garbitzerakoan  
edo bizarra kentze-  
rakoan ere kontuz ibil-  
tzea... Bestetik, sexu har-  
remanetan harreta  
haundiz ibiltzea, preser-  
batiboa erabiltzea.

Oraingoz ez da txer-  
torik aurkitu, nahiz eta  
AZT delakoa erabiltzen  
den HIESa dutenen bizi-  
tza luzatzeko.

- Zergatik gero eta  
HIESak jota dauden gai-  
xo gehiago?

- Pertsonak garen mo-  
dukoak garelako. Ez da  
erraza sexu harreman-  
tan, adibidez, prebentzio-  
a behar den moduan e-  
rabiltzea. Gero Heroina-  
zaleak, oso kolektibo  
zaila osatzen dute daki-  
gun bezala; marginatuak  
kontzientziaztea oso



zaila da. Horregatik kul-  
tura eta informazioa be-  
har-beharrezkoak dira.

Bestalde, jendeak  
garbi eduki behar du nola  
ez daitekeen kutsatu:  
musu emateagatik, be-

sarkatzeagatik, eskolan  
edo lantokian elkarrekin  
egoteagatik, platera ber-  
dinetatik jateagatik, e-  
dalontzi berdinak era-  
biltzeagatik..., ez dugu  
HIESa hartzen.

- Eta Magic Johnson  
kasuak zure ustez HIESa  
hobeto ezagutzeko la-  
gundu du?

- Dударik ez. Jende e-  
zaguna kontajiatzen de-  
nean beste oihartzun bat  
izaten du. Edozein pu-  
blizitate kanpaina baino  
hobea bilakatu da John-  
sonen agerpena, bere  
azalpenak. Aurretik bes-

Johnsonen kasuak askori  
begiak ireki arazi dizkio.  
Gainera gero eta hetero-  
sexual gehiago dira HI-  
ESa dutenak.

- Diotenez, gainera,  
emakumeak izango dira  
hurrengo urteetan kalte-  
tuenak.

- Bai, errazagoa da gi-  
zonak emakumea konta-  
jiaztea. Baina hori ez da  
garrantzitsuenak, gizo-  
nezko zero positibo ge-  
hiago bait dago eta euren  
sexu harremanetan em-  
kumezko gehiago kutsa-  
tu ditzakete.

- HIESa daukagun ja-  
kitek analisiak egitera  
edozein kasutan etortzea  
beharrezkoa da?

- Analisiak egin nahi  
izanez gero, Bergarako  
anbulategian bertan egi-  
teko posibilitatea bada-  
go, oso erraza da. Baina,  
nortzuek egin behar di-  
tuzte probak?, ba arris-  
kuko faktoreen artean  
daudenak: heroinazale-  
ak, homosexualak eta se-  
xua inolako prebentzio-  
rik gabe egin dutenak  
(prostitutak, drogazalee-  
kin sexu harremanak e-  
duki dituztenak...), ar-  
riskuko praktikak izan  
eta haurdun gertatu nahi  
duenak...

Edozeinek edozein  
momentuan hartu deza-  
ke gaitza, baina kontuz  
ibiliz gero, ez dago arris-  
kurik. HIESa ekiditzea  
oso erraza da.



Gizon Emakume  
Barrenkale 35 Iraila 2  
BERGARA

## Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK:

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

- Iturkintza
- Berogintza
- Gas

Tfnoa:  
76 28 04



## Hamar urteko bidea

✓ Orain dela 10 urte, 1.981eko abenduaren 1a, gaixotasun berri bat agertu zen New York-en. Gay-en minbizia zela esan zen, eta HIES (Hartutako Inmunodefizientzia Sindromea) izenez ezagutzera eman zen urte batzuk beranduago.

✓ Hala ere, 1.954ean, gaitz kutsakorrak hartuta hildakoak ezagutu ziren Estatu Batuetan. Gizaki hauek, sistema iinmunea zeharo hondatuta zeukaten hil zirenean. Urte batzuk beranduago, horien sueroak aztertzerakoan, HIESak jota hil zirela o-nartu da.

✓ Gaur egun 288.000 dira mundu osoan IHESak jota daudenak eta 10 milioitik gora gaitzaren antigorputzak dutenak.

✓ Estatu Espainolean 8.199 gaixo daude (1.300 emakume) eta 150.000 seropositibo. Euskal Autonomi Elkartearen HIESa dutenak 1.094 dira eta Gipuzkoan 366.

✓ Euskal Autonomi Elkartearen HIESa dutenen %88a gizonezkoak dira, gainontzekoak emakumeak. Gutxiago badira ere, 1.988 eta 1.990 bitartean harreman heterosexualen bitartez kutsatu diren emakumezkoen kopurua lau aldiz haunditu da: %4tik %22ra. Hamarkada honetan, gainera, HIESaz kutsatuko diren emakumeen kopurua izugarri haundituko omen da.

✓ Gaisoen %45.5a 25-29 urte bitartean dago, %28.7a 30-39 urte artean eta %16.3a 20-24 urte artean.

✓ Euskal Autonomi Elkartearen heroinazaleak dira HIESa dutenen artean gehienak: %80a hain zuzen ere. %5a homosexualak ala heterosexualak dira eta gainontzeko %6en artean denetarik dago.

✓ 1.984. urtetik hona gaitza zutenen arteko %40a hil egin da eta %60a da bizirik dirauena.

✓ HIESa dutenen kopururik haundiena daukan herrialdea Uganda afrikarra da. 5 pertsonatik bat kutsatuta dago.

## Kondoia gora behera



Sexu-harremanen bitartez HIESa hartu daitekeela eta gaitzaren aurka egiteko bide bakarra prekauzioak hartzea dela kontutan hartuz, preserbatibo edo kondoiaren erabilera ugaldtu egin da azken urteetan.

Orain dela gutxira arte haunditu ez geratzeko erabiltzen ziren gomak, ezinbestekoak bilakatu dira sexu-harreman ziurrrak edukitzeko eta sexu transmisioaren bitartez kutsatzen den gaitzik ez hartzeko.

Euskal Herrian kondoiaren salmentak ez dira haunditu azken aste hauek gertakizunen ondoren. Badirudi, beraz, Magic Johnsonen aitortpenak eta Fredy Mercuryren heriotzak ez dutela eraginik izan preserbatiboaren salmentetan.

Bergarako botikari batek esan digunez, "kondoiak beti saldu izan dira farmaziatan. Bai gaur egun, bai orain dela hamar urte eta baiñta Francoren garaian ere. Gertatzen dena da HIESa agertu zenetik farmazietatik aparte ere, beste zenbait tokitan saltzen direla: tabernatan, supermerkatuetan, marrokiak ere saltzen dituzte..."

Preserbatiboak, batez ere gazteek erabilitako produktua izan bada orain arte, gaur egun pertsona heldutxoagoek ere erabiltzen dituzte euren



*HIESa agertu zenetik farmazietan ezezik tabernatan eta supermerkatuetan ere saltzen dira*

sexu harremanetan.

Herriko tanbernari batekin berbetan, kondoiak asko saltzen direla esan digu: «ez dakit zergatik izango den, behar bada farmazietara preserbatiboak erostera joatera auzartzen ez direlako edo, baina asko saltzen ditugu. Gainera, kuadrila ugarik larunbat gauean afaria egin eta juergagihoan kondoiak erosten dituztela, baina ez beren erabilpen normalerako, hauek puztu eta jolasean ibiltzeko baizik".

P. MANSO

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86

CAMACHO

DROGERIA  
USAINDEGIA

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35  
BERGARA



# San Fausto

## 400 metrotan 4 ermita

*San Fausto ermita, Sanposte baserriaren ondoan omen zegoen Imanol Sorondok dioskunez. Zubiatego inguru horietan San Faustoz gain beste hiru ermita gehiago zeuden: Santo Tomas, San Anton eta Santa Engrazia. Denak 400 metroren barruan.*

**G**aurko Sanposte baserrian zegoen San Fausto ermita. Oraindik zutik mantentzen da bere orma zahar bat baserri bihurtuta. Bide ertzean, zubi baten ondoan, beste ermita askoren antzera. Nik ez nuen ezagutu San Faustoren irudia, baina, auzokoek esan zidatenez, San Antongo ermitan jasoa egon zen orain urte batzuek arte.

Hemen, Zubiatego inguru horietan, 400 metrotan 4 ermita zeuden: San Fausto, Santo Tomas, San Anton eta Santa Engrazia. Harrigarria!. Azkeneko bi horiek zubiari begiratzen dioten bi muñoetan. Batek ez daki zer esan: edo bidean zebiltzanak muñotatik babes-teko, gaztelutxoaren modukoak izateko altxa ziren; edo bidariak beren ibilaldietan, muino horietako ermitak ikusitakotan, begiak eta bihotzak


gora jasotzeko egin ziren; edo bi asmo horiekin. Nolanahi ere, gorako ideia hau asko erabiltzen zuen gotikoak bere eleizak altxatzerakoan.

Gaurko ikuspegi eta iritzietako beste harrigarri bat; Osin izeneko hiru tokitan hiru eleiz edo ermita daude: Osin-ondo (Oxirondo)= Santamaña. Be-Osin= San Fasuto. Osin-txu= Emeterio eta Zeledonio.

Ermitarik gabekoa Agirre-Osin (Agorrosin) bakarrik gelditzen zaigu, baña hau ere San Adriantetik ondo samarrean egon, eta agian Agirre-Agerre-Agarre ("punto de mira" edo...) Oxirondokin batera hartu beharra izan.

Dena dela, hiru Osinen ondoan hiru eleiz edo ermita. Orduko pentsaerak eta mitoak, orduko Mariren edo antzeko baten tokiak kristautzeko ote?

*Imanol Sorondo*



*Goiko argazkian Sanposte baserria Behe Osin baserria ondoan daukala. Behekoan, Sanposte ermita zenaren hormaren zati bat baserriari itsatsia.*

## ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA





# NEREA

Gizon-Emakumeen  
lenzeria moda

Simon Arrieta Enparantza 1



ETXE-  
-AUNDI

Negozio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI



ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50




ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA

Azulejo erakusketa • Onduline  
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

## H.I.E.S.aren analisiak egitera joango zinateke?



Marcelino Carmona  
32 urte, langilea

Bai, bai. Zerbaitegatik eskatuko balidate joango nintzateke, baina ziur nago joan beharrik ez daukadala.




Nerea Sotil  
23 urte, langilea

Bai, dudaren bat edukiko banu joango nintzateke.



Edurne Fernández de Arroyabe  
24 urte, psikologa

Bai, ez dut uste arriskuko taldeen artean nagoenik baina joango nintzateke.



Bachir Saidi  
40 urte, langilea

Bai, bai. Gauzak nola dauden ikusirik, badaezbada joan beharko naiz, baina ez dakit nora joan behar den.

# URKIOLA

Gizon eta  
emakumezkoen  
moda

Bidekurutzeta 42,

Tfnoa: 76 16 48

BERGARA





## 1.991ko Txapeldun- ordeak

Espainiako Mendiko Txapelketak hamabi proba ditu seiko bi fasetan banatuta. Aurtengoan ilusio haundiz eta zorte onez ekin genion eta txapelketaren lehen fasea irabazia genuen, artean proba bat falta zela, Asturiaseko *La Faya de los Lobos*.

Bigarren fasea ez genuen horrenbesteko suertearrekin hasi, egunean egunean izan genituen aberia eta istripuak. Halaxe ere, *Zabaleta Ekipoak* bi bigarren postu bikain lortu zituen.

Guzti horren ondoren, artean bagenuen txapeldun izateko aukerarik, baina bapatean Asturiaseko *La Faya de los Lobos*eko proba suspenditu egin zuten eta txapeldun izateko aukera guztiak galdu genituen. Edozein modutan, esan beharra dugu pozik gaudela lortutako *1.991ko Espainiako Txapeldunorde* tituloarekin eta gogo haundia dugula datorren urteko txapelketa korritu eta ahal dela txapela lortzeko.

Lerro hauen bitartez nire babestaileak eskertu nahi ditut eman didatan laguntza bikainagatik, bereziki: EMEC, LAZPIUR, ZENTURY, eta baita: Cibrian A.L.S., Fotolider, R.A.C.U.N., eta komunikabide guztiei.

**Aitor Zabaleta**



## Tolosako Txotxongilo Jaialdia

Emanaldi ugari eta oso onak egon dira, baina oso aipagarria izan da *Pekineko Antzerki Nazionalak* eskeini duen kalitate haundiko "*El mono arma la gorda en el cielo*" muntaia, benetan "txinoen lana" esaten dena, esku lanketa trebea eta plastika aldetik oso ederra; penagarriak suertatzen ziren eszenaz aldatzeko egiten zituzten ilunaldiak, lilura eta ritmoa galerazten zion. Dena den, ikusgarria.

Bertan aurkeztutako beste taldeen arteko bosten lanak *Bergarako Nazioarteko I. Txotxongilo Jaialdian* ikusitakoak ziren. *Hugo eta Ines* taldea izan zen Bergaran aurkeztu ez emanaldia eskeini zuena, eta han ere liluratuta utzi zuen ikusleagoa "*Las aventuras de Ginocchio*" lanarekin. Muntaia honetako eszena batzu ikusiak genituen San Martin Plazan ere. Eta honetaz gain, beste lau taldek Bergaran aurkeztutako muntaia eskeini zuten: *Tanxarinak "Titiricircus"*, *Los titiriteros de Binefar* taldeak "*El bandido cucaracha*", *Zootrop* taldeak "*En Groc*" eta *Taun-Taun* taldeak "*Bi kate*".

Eta bukatzeko, Tolosan zeuden txinatar guztiak aho zabalik gelditu zirela Bergarako *Alfonso* eta *Eufemia "Bi kate"* protagonistak eszenan ikustean. Harrituta bai baina tutik ulertu gabe, euskaraz eta gatzelaniaz eskeini bait ziren.

**Iñaki Mata**

## EDEL tapizdenda

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltxak,  
edredoak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA



## ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

Kirol Moda  
SURF

# AISOR

Rip Curl, Town country, Quick Silver, O'Neill

Bidekurutzeta 7 Tfnoa: 76 04 10 BERGARA



## Zeuk galde



### 44. Zein da lauburuaren esanahia?

Lauburua modu batekoa edo bestekoa mundu osoan zabaldua egon da. Badirudi sarreran zeinu sakratua zela. Gerora balio sinbolikoa edo zaintzakoa izango zuen eta gaur egunean apaingarria baino ez da.

Déchelette Jaunaren ustez, garbi dago hasiera batean "eguzkia-mugimenduan" agertzen zuen ikurra zela. Badago eritzi horrekin guztiz bat ez datorrenik ere baina interpretaziorik gehienak eguzkiarekin lotzen dute.

Edozein modutan, lauburuari buruzko azalpen luzeagoa lortu nahi izanez gero, "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco"ra jo dezakezu.

### □ Makina bat argazki

Larunbatean *Andoni Larrañaga* Kirol Batzordeko zinegotziak eta *Iñaki Ugarteburu* Udal Kirol Zerbitzuko arduradunak kirol argazkien lehiaketaren banaketa egin zuten Kultur Etxean. Lehiaketa honetan parte hartu duten 25 argazkilariak (tartean 6 bergararrak), guztira, 80 argazki aurkeztu dituzte eta epai-mahaiak honako hauek saritzea erabaki zuten: zuribeltzean, lehen saria *Javier Pedro Fernandezentzat*; bigarren *Javier Ruiz Larrinaga*, eta *Benito Cantero* bergararrak hirugarren saria irabazi zuten. Lehen herritarrentzako saria *Daniel Santosentzat* izan zen. Kolorezkoetan berriz, *Benito Cantero* irabazi zuen lehen saria, bigarren *Jose Ignacio Arzadun* izan zen, hirugarren *Agustin Sagasti* eta lehen lokala, *Juan Tabares*. Behingoz, argazkilari hauei kamaraz bestaldean egotea tokatu zitzaion.




### □ 62 eta 50 urte ezkondurik

Bi bikote hauek azaroaren 27an marka ederra egin zuten. Ezkerreko argazkikoek, *Eugenio Gisasolak* eta *Eladia Larrañagak* 62 urte ezkondu egin berri dituzte Elosun ezkondu zirenetik eta beraien lau seme-alabek hiru biloba eman dizkiete honezkero. Eskuman agertzen direnak berriz, *Jose Mari Lizarralde* eta *Juanita Gisasola*, marka horretara iristeko bidean dira eta urrezko eztaiak ospatu zituzten igandean, 41ean ezkondu baitziren Santa Marinan: Sierbetan izandako mezaren ondoren, familiakoekin, 4 seme-alabak eta 2 billobak tartean, bazkaltzera joan ziren Lasa Jatetxera. *Zorionak lauroi!*

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



## Laskurain

saneamenduak

Barrenkale 35,

Tfnoa: 76 24 89

BERGARA






### □ Kintadak

Kintoen bazkari eta afariena *kulebroia* bihurtzen ari zaigu, astebukaeran beste bi kintaden ospakizunak izan genituen eta; larunbatean, *65eko kintoak* izan ziren afaltzeko bildu zirenak. Argazkikoak berriz, *47koak* dituzue. 90 bat gizon eta emakumek beraien jaiotzaren *65. urteurrena* zelebratu zuten igandean. Hildako lagunaren omenezko mezaren ondoren, Antxonira joan ziren bapoz bazkaltzera. Zorionak guztiei!


## Zertan dihardute ba?

J.M. ELEXPURU



Astebukaeran Durangon burutuko den *Euskal liburu eta diskoen azokaren* barne, 41 urteko idazle, irakasle eta itzultzaile bergarar honek bereziki haurrei zuzendutako "*Marea biziak zozo mikotetan*" nobela aurkeztuko du.

FELIX BERRAONDO



62 urteko mediku bergarar hau jubilatuta egin zitzaigun azaroaren 2an. *Don Felixek* lanean eman ditu azken 36 urteak gure gaixotasunak sendatzen eta orain ondo merezitako jubilazioa heldu zaio.

## Enebada

Sukalde, mahai eta  
etxerako artikulua.  
Oparigaiak

Mahasterreka 19, Tfnoa: 76 46 53

## ezpeleta etxea

Harizko eta kotoizko  
goimalako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA



## alga

Usaindegia.  
Eder-gela. Oparigaiak.

IBARGARAI 10 Tfnoa: 76 00 85



# Izkirimiriak

Beste Bergarako mutiltxo arena ere ez zan ba makala izan; el-tzen da eskolatik etxe-ra ta orra amarekin eu-ki zuen elkarrizketa:


- No, ama!... gaur bai ederki egon garala eskolan. Barre batzuk egin dittugu!...

- Zer pasau dok ba?

- Zera... mutiko ba-tek praketara "KK" egin ez dau ba!... Or-duan maistriak prakak kendu "dotsa", garbittu ta zintziliz jarri dittu eta bittartian mutikoak antxe egon biar izan dau baztartxo batian praka barik eta eskola-ko danok barre ta barre... Aura zan barre "eittia"!...

- Mutil! ori be ez ja-gok ba ondo!...

- Naikua bialeku jeukan gizajoak iñok barrerik egin barik be!... Olakotan ez jakok iñori barrerik egin



biar...

- Ez... Je!... zera ego-ten zan an barrerik "ein" barik!...

Andik laister jakin zuen amak eskolan praketara "egindakoa" ta prakak zintzilizka eukitakoa ta baztertxo batean egindakoa bere semea bera izan zala.

**Txomin Amasorrain**

## Antzinako kontuak

### Telesforo Aranzadi eta Bergara (I)

Euskal Herriko Historiaurrean lehenetariko urratsak markatu zituen pertsonaia Bergaran jaio zen, 1.860ko urtarrilaren bostean. Garai hartan Bergarak dudarik gabeko garrantzia bazuen ere ez zen mende bat lehenago izan zena. Real Sociedad Bascongada de Amigos del País delakoaren sorlekua izan, Erret Seminarioa izatera heldu, non pertsonaia ospetsuak lanean arituko bait dira. Baina mende bat beranduago, hainbat gerrate eta setio eta abarrak jasan ondoren egoera ez zen batere baikorra. Horrela, Telesforo jaiotzen denean herriak izandako kultur eta zientzilari gune jitea galdurik zuen hein haundi batean. Gainera, azken karlistadaren ondoren Seminarioa itxi egin zen.

Telesfororen ama,

Valentina Unamuno Larraza (M. de Unamuno idazle ospetsuaren aitaren arreba) bergararra zen. Aita, Felix de Aranzadi Aranburu aldiz, Aretxabaletakoa. Ogibidez, goxotegi bat zuen.

Gure pertsonaiaren lehen egunetan gertaera bat, ondorioak beranduago ekarriko dituen, ematen da zeinak Telesfororen izaera isladatzen duen: badirudi, bataio-agirian erretore jaunak edo bere idazkariak jaio berriaren deitura idazterakoan ahantzi zuela izenaren ondorengo gaztelazko "de"-a, hau da, Telesforo Aranzadi, Telesforo de Aranzadiren orde idatzi zuen. Gertaera hau administratzaile funtzionarioen aurkako borroka luze baten hasiera izango da.

**Xabier Larrañaga**

**ONENA**  
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

**JUBILATUEN**  
**TABERNA**

• Bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

**PEÑALBA**

• Loteria  
• Oparigaiak

Irala 1, Tfnoa: 76 10 49  
BERGARA

**Zubiberri**

*Sagardotegia*

• Eguneko menuak  
• Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

Bidekurutzeta 6, behea  
Tfnoa: 76 57 68  
BERGARA

**aroa**  
boutique





## Saski sasoian

Bergarako senior gizonen *saskibaloitaldeak* bere ratxa onarekin jarraitzen du; igandean, garaipen berri bat lortu zuen etxean *Eskoriatzaren* aurka 76 eta 69ko emaitzarekin. Bergararrek partidu bikaina jokatu zuten eta kiroldegian bildutako jendeak asko gozatu zuen bitaldeek eskeinitako partiduekin. Ia partidu osoan zehar bergararrak

markagailuan atzetik egon arren (38-44 lehen zatian), azken minututako erreakzioari esker aurrera atera zuten partidua. Honako hauek jokatu zuten: Muñoz(11), Etxeberria, Martinez (7), Corrius (6), Moretón, Arbulu, Mujika (4), Gabilondo, Garitano (12), Iñarra (26) eta Herzog. Bergararrak sailkapeneko liderrak ditugu Heranirekin berdindurik.

# Txinpartak

✓ *Iñigo Gallastegik Euskadiko Igerilari Konpletorenaren Txapelketa* absolutoa ere eskuratu zuen igandean Iruñean. *Juan de Borja* hirugarren izan zen 78an jaiotakoan artean, *Jon Jauregi* laugarren 77koen artean eta, *Nora Olabide* seigarren 76an jaiotakoan artean.

✓ *Iñigo Igartua* txirrindulari bergararrak joan den igandean iaz *Azpeitian* lorturiko garaipena errepikatzeke ez zuen arazorik izan eta lehenengo izan genuen berriz ere helmugan *Eric Vervoet* beljiarra eta *Yurrebasoren* aurretik.

✓ *Bergarako futbol taldeak* eta *Rocak* bana berdindu zuten joan den igandean Agorrosinen; *Pelayok* berdinketaren gola penaltiz lortu zuen 80. minutuan. Bergara, Roca eta Lazkao sailkapeneko lehen postuan berdindurik ditugu.

✓ *Bergarako 2. mailako emakumezkoen saskibaloitaldeak* galdu egin zuen igandean *Gasteizen* 62 eta 38ko emaitzarekin.

✓ *Eskubaloian* berriz, senior gizonen 19 eta 26 irabazi zioten Donostiako *Loyolari* eta gazte neskek ere *Usurbilen* 15 eta 17ko emaitzarekin nagusitu ziren.

## Bereinkua azkarrena

*Rafael Bereinkua*, MK 34 Formula Martinia gidatuz, izan genuen Angiozarren jokaturako *Gorlarako VI. Igoeran* irabazle. Ikusmin handia sortu zuen proba honetan, bi txanda ofizialak jokatu gero, *Bereinkuak* lortu zuen denborarik onena minutu bat, 26 segundu eta 75 ehunenekin. Bigarren *Climent* eta hirugarren *Egozkue* izan ziren. Lehen bergararra *Iñaki Olañeta* izan genuen, 5. postuan, *Javier Bretaña* 8.a izan zen, *Iban Rodriguez* 16.a eta, *Alberto de Lucas* 19. sailkatu zen. *Aitor Zabaletak* motorra hautsi eta exhibizio goera bat baino ez zuen korritu.



**LARREA**

**TABERNA**

**Kale Barren 17  
ANTZUOLA**

**PANADEROKUA**

**Taberna**

**Babarrunak eta  
saiheski errea**

**ELGETA, Tfnoa: 76 82 73**



**Era guztietako  
kristaleria: Ispiluak,  
bidrierak...**

**UR Kristaldegia**

**Urteaga 8, Tfnoa: 76 54 68 BERGARA**





### Aberri futbol taldea

**A**urreko batean Bergarako lehenengo futbol ekipoetako bat azaltzen genuen: Askatasuna taldea. Harekin batera izan zen beste talde bat, Zubieta aldeko gaztez osatua: Aberri taldea. Ez zuen urte askoan iraun.

Primo de Riveraren diktadura zela eta, izena aldatu beharra izan zuen eta Aurrera izena hartu. Orduko gazte ausart haien omenetan, goiko erretratu.

Ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Jose Maria Alkorta, Isidro Alberdi, Felix Bilbao, Victorio Unamuno, Elias Garate, Enrique Durana, Jose Maria Gallastegi, Felix Unamuno eta Pako Gallastegi.

**Makurtuta:** Jose Igartua, Ignacio Ibarzabal eta Santiago Lizarralde.

*Estepan Plazaola.*

*Argazkia: Isidro Alberdi.*

**OHARRAK:** Orain dela gutxi atera genuen Acción Catolica-ko dantzarien argazkia Txomin Amasorrainena zen.

Bestalde, aurreko astean atera genuen argazkian Aitor Garitano ez baizik eta Eneko Ziarsolo agertzen zen. Era berean, argazkian azaltzen zen Ramon Agirrezabal (denetarik altuena) ez genuen aipatu.

**SURPE**  
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

*Carmen Garate*

Plastikoak eta narruzko gauzak

Bidekurutzeta Tfnoa: 76 13 23  
BERGARA

**IZARRA**  
Ileapaindegia

**Mistoa**



San Pedro 23 Tfnoa: 762972





**ETXEBIZITZA**

**Pisua daukat eta konpartitzeko lagunen bila nabil.** Deitu: 762457 (eguerdian).

**Pisua salgai Koldo Eleizalden.** Tfnoa: 765823.

**Garajea alokairuan utziko nuke Burdihatzen.** Deitu: 763189.

**Baserrí bat hartuko genuke alokairuan.** Tfnoa: 763431.

**Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an.** Deitu gaueko Betatik aurrera: 764252.

**Pisua salgai Dr. Fleming kalean.** Deitu 760415 telefonora iluntzeko 8etatik 10etara bitartean.

**Pisua errentan hartuko nuke.** Deitu: 760357

**SALDU-EROSI**

**Paralela eskopeta ederra salgai.** Deitu: 764512

**Kotxerako erremolkea salgai.** Tfnoa: 764512

**YAMAHA PSR3 organoa salgai.** 24 erritmo eta 100 ahots. Hanka, transformadore eta guzti. Berri-berria: 60.000 pzta. Deitu: 765231, gauez.

**Amstrad ordenadorea salgai,** kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku. 35.000 pezeta. Tfnoa: 762512.

**Karabana berri-berria salgai** 5 pertsonarentzako abanize eta guzti. Deitu: 761388.

**200 litrotako Fagor termo elektrikoa salgai.** Deitu: 764988 gauez.

**3 pertsonarentzako Iglu kanping-denda berria salgai.** Deitu: 763495.

**Logela bat eta altzariak salgai oso merke.** Deitu: 761929.

**AMSTRAD CPC 6128 ordenadorea salgai,** kolorezko monitorea, 40 joku eta 3 Joystick. 50.000 pzta. Deitu: 761528.

**Erabililtako altzariak erosiko nituzke** (mahaiak, aulkiak, armairuak, etab). Deitu: 768157, gauez.

**Neskentzako bizikleta salduko nuke.** BH bolero rosa modelo. 7tik 11ra urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti. Tfnoa: 761314

**Narruzko kremaileradun txaketa salgai.** Berri-berria. Deitu: 763968.

**SPECTRUM+2 bat salgai.** 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 19.000 pezeta. Deitu: 762512.

**Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta bategatik trukatu nuke.** Deitu: 763269.

**LANA**

**Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen.** Deitu: 765482.

**Neska euskaldun bat behar dut haurrak zaintzeko.** Tfnoa: 765892.

**Mutil batek furgoneta batekin errekauek egiten lan egingo luke.** Deitu: 742063.

**Hildakoak**

*Concepcion Ezenarro Larrañaga*

azaroaren 30ean, 90 urte

*Txomin Gaztelu Alberdi*

azaroaren 30ean, 40 urte

*Jose Idarreta Sañudo*

abenduaren 1ean, 85 urte

*Jacinto Gonzalez Escala*

abenduaren 3an, 97 urte

**Jaiotakoak**

*Jon Asier Linazisoro Madinabeitia*

azaroaren 15ean

*Jon Zangitu Martinez*

azaroaren 30ean

**AUTOPULLMANS ARABA  
Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

**Euskalduna  
Taberna**

**OSINTXU**





**FIORINO  
ACTIVA  
DIESEL FURGOIA**

1.697 cm. kubiko  
60 zaldi  
2,7 m. kubiko  
470 karga erabilgarria

**1.120.000 pzta.  
Matrikulatuta**

**ERAKUSKETA:**  
Ibargarai 39  
BERGARA

**TAILERRAK:**  
Antigua Auzoa  
ANTZUOLA

**Autoberezi FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA



**ASEGURU ARTEKARIAK**

- |                              |                         |
|------------------------------|-------------------------|
| ✓ Etxeko arrisku askotarakoa | ✓ Pentsioetarako planak |
| ✓ Garraioak                  | ✓ Istripuak             |
| ✓ Autoak                     | ✓ Subsidioa             |
| ✓ Komunitateak               | ✓ Komertzioak           |
| ✓ Bulegoak                   | ✓ e.a.                  |

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA